Euskara ikasleentzat www.ikasbil.net ikas-baliabideen bilgunea jarri du amaraunean Helduen Alfabetatze eta Berreuskalduntzerako (HABE) erakundeak.

Atari berri honetan, euskara-ikasleak ikas-baliabide ugari aurkituko ditu, bilatzaile eraginkor baten bidez bere beharren arabera erraz eskuratzeko modukoak.

Une honetan 8.000 eduki didaktikotik gora daude atarian (idatziak, entzungaiak, bideoak, ariketak, sekuentziak...), denak irizpide didaktikoz katalogatuak (euskara-maila, helburu didaktikoa...) eta on-line egiteko moduan jarriak, doan beti ere.

EL EUSKERA Y LAS NUEVAS TECNOLOGIAS

HABE ha puesto en marcha en la red el portal www.ikasbil.net, dirigido especialmente a gente que está aprendiendo euskera.

En esta dirección podremos encontrar gran cantidad de material didáctico, así como información referente a la oferta de euskaltegis, convocatorias, plazos de matriculación, etc..., y también noticias sobre actos y actividades culturales en euskera.

Honez gain, euskara-ikasleak bere ikas-prozesuan biziki baliagarri izango zaizkion bestelako baliabideak ere aurkituko ditu, HABEk berak sortu edo bideratuak, eta baita euskara-ikasleen komunitateak berak sortuak ere, hala nola, irrati-nobelak, denbora-pasak, ipuinak...

Euskara ikaslearentzat informazio iturri

Atari honek, gainera, informatu egingo du: euskaltegien eskaintza, deialdien ezaugarriak, matrikulazio epeak... Eta euskarazko kultur emaldi eta ekintzen berri ere emango du atariak, euskara-ikasleak bere beharrak direnak direla erabateko zerbitzua jaso dezan.>

Jexux Mari Alberdi

▼ *Sartu eta zeuek begiratu zuzen-zuzeneanbatzuk:*





**Urretxuarrak
Almerian aurkitu du
Asobal Ligan
jokatzeko aukera**

IKER SERRANO **“Eskubaloira kasualitatez iritsi eta egun goi mailan nago Europara begira”**

Iker Serrano, 21 urteko urretxuarra, egun Keymare Balonmano Ciudad de Almeria taldeko jokalaria da. Estatuko Asobal Liga eskubaloian mail gorena da eta European indartsuenetariko bat. Almeria erdi aldean kokaturik dago oso denboraldi ona burutzen ari delarik. Otsailaren 22an Irungo Bidasoaren aurka jokatu zuen eta 31na berdindu. Ikerrekin bezperaz hitz egin genuen. Merezki zuen siesta apurtu arren, ongietorri beroa eman zigun mutil-puskak. Goi mailako Eskubaloia talde honek autobusez egiten ditu bidai gehienak eta ia 13 ordu pasa zuten bidean. “Nekaturik nago, gaueko 12etan atera gara Almeriatik eta ia ordubatean iritsi gara Irunera” zion etsita. Kafetegian familia agurtu ondoren, hasi genion solasaldiari.

Zer moduz Almerian?

Orain, oso ondo! Hasiera zaila izan zen. Hilabete t'erdiko aurre-denboraldia egin genuen eta gogorra izan zen. Gainera, gaztea izanda gehiago demonstratu behar duzu bertakoen konfidantza eskuratzeko eta gustora nago, dexente jokatzeko ari bainaiz. Etorri nintzenetik 10 kilo irabazi ditut (egun 96 ditu eta 1,91 m.) eta gutxienez astero hiru ordu gimnasioan ematen ditut. Almerian bertan bizi naiz, entrenamentuak gertu dauzkat eta goizean ikastea derrigor-

tu dut nire burua, kirola eta ekintza fisikoei buruzko goi mailako moduloa egiten ari naiz.

Nolatan joan zinen haraino?

Oso eskaintza ona egin zidatelako. Bi urteko kontratua, nahiz eta taldeak hiru eskaini. Oso gaztea naiz oraindik eta nahiago nuen pixkanaka pixkanaka joatea. Bestetik, proiektu serioa iruditzen zitzaidan eta jokatzeko aukerak ikusi nituen. Asmatu dudala uste dut.

Zein da taldeko helburua?

Kontuan izanda taldeak Asobal ligan 2 urte daramatzala, aurten jaitziera postutik ihes egitea zen helbu-

“ El año pasado me fui a Huesca y tuve varias ofertas; he acertado en irme a Almería ”

OSO PERTSONALA

Izen-abizenak:
**Iker
Serrano Matias**

Jaiotze data:
1984ko ekainaren 22a

Neurriak:
**1,92 m
96 kilo**

Taldeak:
**Urola E.T.
Bidasoa
Zarautz
BM Forcusa Huesca
Keymare Balonmano
Ciudad de Almeria
- Euskadiko Selekzioa
- Espainiako junior
selekzioa**

ru. Zentzu horretan urtea oso ondo doa eta horrela joanez gero, Europan jarriko ditugu begiak. Gainera presidentea gustora dago eta babesleak, Keymarek, Europara saltoa ematen badugu aurrekontua bikoiztuko luke, 2 milioi eurotara iritsiz. Horregatik gogokin gaude eta oso konzentratu-rik.

Azken aldi honetan Almerian kirolaren susperaldia ematen ari da, ezta?

Bai, dirudienez dirua kirolatik hurbil mugitzen ari da. Boleibolea Estatuko onenak dira; futbolea bigarren mailan nahiko ondo dabilta eta gu ere sendo goaz, jende ugari dator gu ikustera. Maiatzean Eskubaloiko Errege Kopa jasotzen dugu eta bertan talderik indartsuenak izango ditugu. Aurrez aurre neurtuko gara onenekin, ligan Europara heltzen saiatu

“ Keymare, nuestro patrocinador quiere vernos en Europa y lo vamos a intentar ”

arren, hurrengo erronka kopa izango da.

Okerrena zer da, orduan, etxetik hain hurrun egotea?

Ohitzen ari naiz, baina, bai, gogorra egiten da eta gainera gutxitan etortzeko aukera izan dut. Bestetik, oso bidai luzeak eta gogorrak ditugu: Eibar, Irun, Santander, Cangas, Barcelona, Granollers... Gertuena, nahiz eta Andalucian bertan izan, bost ordukoa da!

Nola hasi zinen eskubaloian?

De rebote! Gazte gehienak bezala futbolea nentzen. 12 urte nituela Jose Angel Garcia Varak eskubaloia probatzeko eskatu zidan eta handik urte betera Euskadiko selekzioara deitu ninduten. Garai horretan fisikoki beste gazteak baino garatuagoa nengoen eta nabaritu zela uste dut.

Beraz, lehenengo urratsak Urolan

Bai, infatil eta kadete mailan ibili nintzen. Jubeniletan Bidasoara joan nintzen. Irungo institutoan ikasi nuen eta 16 urteko gazte batentzat kanpoan ikastea oso zaila da. Gainera, ez nintzen oso langile. Gainzurin eta Jose Mari Iparragirre institutoan gustora nengoen eta Irunen ‘konzentrazioa’ galtzea errezago izan zen.

Eta zer moduz Bidasoan?

Hasieran ondo. Asobal Ligan 2003ko martxoan Palaun egin nuen debuta Bartzelonaren aurka. Ez dut sekulan ahaztuko. 18 urte nituen. Horrelako jokalarien ondoan aritzea, askotan telebistan ikus dituzunak, berezia da. Gainera, Skrbic parean izan nuen, nire idoloa, gehien gustatzen zaidan jokalaria, nire postuan ederki jokatzeko eta asko fijatzen naiz.

Pibotea zara, zer nolako dohaiak dituzu?

Hasi nintzenetik pibote lanak egin ditut. Ez naiz oso altua, baina ordea nahiko abila; defentsan burubelarri nabil eta erasoan kontaktua gustatzen zait, nahiko burugogorra naiz askotan!

Halere, Asobal ligara heltzea eta aritzea ez da erreza, ezta?

Bai fisikoki, bai teknikoki oso maila altua dago Asobalean. Bidasoan nengoela Julian Ruizek, gaur egungo entrenatzaileak, Zarautzera joateko esan zidan. Urtea pasatu zen eta Bidasoatik kanpo nengoen; orduan, Huescako taldeak deitu ninduen. Han ezagunak nituen eta horrek animatu ninduen. Oso urte borobila egin nuen iaz eta, ondorioz, eskaintza interesgarriak izan nituen. Almeria aukeratu nuen, oso urrutiri egon arren... eta hemen nabil! (hori dela eta Bidasoaren aurkako partida berezia zen, aukera eman ez zion entrenatzailea aurrean izango baiden)

“ No entiendo que el Bidaso y Arrate tengan únicamente 7 guipuzcoanos ”

Zer iruditzen zaizu Arrate eta Bidasoan soilik zazpi gipuzkoar egotea?

Gainera Bidasoak bost ditu eta hiruk ez dute jokatzeko, beraz... Ez dut ulertzen, hemengo jokariaren konpromisoa handiagoa da beti eta atzerriara doaz ez dakite zeren bila. Atzerriarrak ekarri behar dira, bai, baina onak. Kirolgik dirutza handia ematen die Arrate eta Bidasoari, baina horren ordez ez die gipuzkoar kopururik eskatzen... Eta gero Valladoliden bost gipuzkoar daude! Ikerrek entrenamentura joan behar zuen eta amaitu genuen elkarrizketa. Hori bai, Kaixo bidaltzeko eskatu zigun, “horrela ikusiko dut zer nolako aldaketak dauden herrian”. Hori bai, kafeak berak ordaindu zituen.>

Jabier Otermin



KAIKO Gaztetxo!



*Txikiagoa zinenean gurasoen eskutik joateko
ohitura zenuen. Noizean behin zure amatxok parkera eramaten zintuen eta
han, beste amatxoekin egoten zen bitartean,
zuk lagunak bilatzen zenituen kulunpio baten truke.
Orain 5. edo 6. mailan zaude, ziurrenik futbol taldea osatuko zenuen jada,
zinemara joaten hasiko zinen zure gelakoekin.
Nik Gazte Lokal bat ezagutzen dut, Urretxun dago, Goierri Kirol elkartearen
ondoan, joan al zara inoiz? Jadanik 11 urte inguru duen neska zein mutiko
joan daiteke bertara. Animatu bada!*

Ostiral arratsalde batean inguratu nintzen lokalera.

Kanpoan gaztetxo ugari zegoen jolasean, barruan beste batzu telebista ikusten edota ordenagailuan jolasten, begiraleak haien ondoan zeudela. Bai, begiraleak dituzte, neska eta mutil jatorrak haiek ere.

Haietako batekin egon nintzen hitz egiten, Jokinekin. Hemen hark esandakoa, ea animatzen zareten.

Nondik sortu zen Gazte Lokala sortzeko asmoa?

Duela 3 urte sortu zen, gazteek euskara erabiltzeko, beraien aisialdia euskaraz erabiltzeko asmoarekin.

Helburu nagusia gazteen artean euskararen erabilera bultzatzea litzateke. Gazte askok erderaz hi-



"Maite zaitut", Pirritx eta Porrotxen pailazokeri berria, Urretxuko Ederrena pilotalekuan maiatzaren 7an izango dugu, arratsaldeko 5etan. Bertan hainbeste gustatzen zaizkizuen abestiak abestuko dituzte, haien artean ANAKLETO abestia.

Ezagutzen al duzue? Ziur baietz!

Pirritx eta Porrotx ikustera joan nahi al duzue?

Lehiaketatxo honetan parte hartu eta agian sarreratxoren bat lor dezakezue.

Ana Isabel Iturbe

margotu nazazu!!



M	A	D	A	L	E	N	A	K	I
X	Z	U	I	E	D	E	M	O	J
E	K	B	T	I	E	R	O	R	I
S	I	I	O	A	R	E	N	B	T
U	A	D	N	S	N	A	I	A	O
T	T	U	A	I	T	K	U	T	A
O	I	G	I	T	A	R	R	A	R
M	R	A	Z	M	B	I	A	L	D
I	R	I	K	P	O	O	T	O	I
A	I	L	A	G	U	N	A	K	Z

HIZKI ZOPA honetan abestiko hainbat hitz aurkitu behar dituzue. Hemen duzue abestia eta ondoko orrian aurkitu beharreko hitzak. 2 Sarrera zozketatzen dira! Sobretxo batean sartu hizki zopa ta Kultur Etxera bidali edo eraman, zuen izen, helbide, telefono ta guzti, ZORTE ON!!

A- na -kle- to!

A! Iji- aja aitona **ijitoo**

A-na-kle-to!

Na! Astoen apaintzaileetan trebeena

Kle! Saldu eta erosi dena merke- merke

To! Zugana gatoz, anakleto!

A! Bizarrean igurtziz pospoloa

Na! Txipli-txapla pun!

Sutan errez gaztainak

Kle! **Guitarra** astinduz, ai!

Lerele, lerele!

To! Zure parekorik ez dago.

A- na- kle- to!

Karabana bitxia, tramankuluz josia

Anakleto zaharraren altxor txikia

Korbata ta bi lore

Zain **aitona** dotore

Kanturako elkartu gara gaur ere

Gora, behera, aurrera

egin dezagun topa

amets guztiak bete daitezen opa

ahantz ditzagun penak,

atera **madalenak**

Lagunak gara ta hori da dena!

Izena

Abizena

Helbidea

Telefonoa



UDALAK ETA ALDUNDIAK MUSEOKO MINERAL ETA FOSILEN BILDUMA EROSI DUTE

Aguado sendiaren 625 mineral eta 400bat fosil batzen dituen bilduma 71723 eurotan erosi dute Udalak eta Aldundiak. Martxoaren 31an, Mineral eta Fosilen Museoan sinatu zuten bildumaren salerosketa kontratua Foru Aldundiko kultura zuzendari Imanol Agote, Urretxuko alkate Pello Gonzalez eta Javier Aguado Goñik, bildumaren jabea. Bilduma hau, duela hogeit bat urte Javier Aguradoren aitak utzi zion Udalari eta urte bete beranduago zabandu zuten honek Mineral eta Fosilen Museo Urretxun.

Museoaren harira, museoaren nazioarteko eguna maiatzean ospatuko dela aurreratu daiteke. Urtero bezala, hainbat ekintza antolatuko dira:



MUSEOEN NAZIOARTEKO EGUNAREN INGURUKO EKINTZAK URRETXUKO MUSEOAN

- MAIATZAK 13 larunbata: IRTEERA

"EL SOPLAO" kobazuloari bisita.
"Geologiaren katedrala" esaten diote. Ikusgarria benetan.
Cantabrian, Comillasetik gertu.
"JURASICO AROKO" MUSEOARI BISITA. Colunga udalerrian jauregi etxe batean kokatuta.

Informazioa eta izen-emateak:
kultur etxean (943 03 80 88)

- MAIATZAK 14, igandea:

ATE IREKIEN EGUNA MUSEOAN
Egun osoz irekita
11:00-14:30 / 16:30-20:00
Bisitaldi gidatuak
12:00etan eta 18:00etan

GAINERA, HAURRENTZAKO PARKEA
Iparragirre plazan, MEATEGIA
eta URRE BILATZAILEAK
Orduetgia:
11:00-14:30 / 16:30-20:00.

MAIATZAK 18, osteguna:

MUSEOEN NAZIOARTEKO EGUNA
- BISITALDI GIDATUAK HERRIKO
IKASLEENTZAT

- 10:00 etan eta 15:00etan,

"EINSTEIN" ANTZERKIA
Zientziako kontuetaz modu dibertigarri eta erakargarrian hitzegiten duen espektakulua. Interaktiboa. 6-10 urte bitarteko haurrek EINSTEINen mundua ezagutzeko.

MARTXOAN, BERTSOA!

Ekintzaz beteta joan da bertso eskolak laugarren urtez antolatutako Martxoan Bertsoa egitasmoa: Estitxu Eizagirre bertsolariaren eskutik ikastordu irekia, Amets Arzallus eta Aitor Sarriegirekin Galeperra elkarte bete zuen bertso-afaria, haurrentzako 1,2,3...Iñaxito! bertso-antzerkia, Asier

Otamendi eta Alberto Martinez Beitto-ren bertso bidaia diaporama, bertso musikatutak eta nola ez herriko bertsolari txapelketa.

Ohi bezala, hiru kanporaketa izan ditu txapelketak eta guztiek tabernak goraino betetzea lortu dute. Motz

tabernan izan zen lehen kanporaketan, Antton Fernandez, Uxue Fernandez eta Eli Lasak osatutako Lasatarrak taldea gailendu zen. Fox tabernan egindako bigarren kanporaketan berriz Gorka Azkarate, Asier Azurmendi eta Manex Mantxolak osatutako Mihiluzeak taldeak irabazi zuen eta azken kanporaketan, Aldirin egindakoan, Joseba Segurola, Juanjo Aranburu eta Iker Otegiren Beteranoak taldeak. Ongi prestatutako taldeak dira hirurak eta oso parekatua izan zen Gaztelekuko final handia. Hain zuzen, puntu bakarrarengatik irabazi zuten Mihiluzeak.

Egitasmoa antolatu duen bertso eskola "oso gustura" dago aurtengo Martxoan Bertsoan-ek izan duen arrakastarekin "bai kalitatearen aldetik baita jendearengan izandako harreragatik eta "datorren urteko zikloa antolatzeko gogoz" dira iada.



ESKOLARTEKO XIX. BERTSOPAPER LEHIAKETA

Martxoan betsoa zikloaren baitan egin bada ere, egitasmoak baino urte gehiago ditu bertso eskolak Urretxu eta Zumarragako udalen laguntzarekin antolatutako eskolarteko bertsopaper lehiaketak. Hain zuzen, hemeretzigarren edizioa izan da aurtengoa. Herrian gaztetxoan artean bertso zaletasuna dagoenik ezin da zalantza jarri. Izan ere, sekula baino lan gehiago aurkeztu baitira lehiaketara: 215. Hiru maila bereizi dira. A maila (LHko 5. eta 6. mailakoak), B maila (DBH 1. eta 2. mailakoak) eta C maila, DBH 3. eta 4. mailakoak. A eta B mailetan aurkeztu dira lanik gehien, 106 eta 78. Gainera, lanen kalitate handia dela eta, lehen hiru sariez gain aipamen bereziak egitea erabaki zuen epaimahaiak. Aurtengo berritasun izan den C mailan berriz txikiagoa izan da partaidetza. Bertan, 31 lan aurkeztu dira.

Hauexek izan dira aurtengo irabazleak:

A maila. Gaia: goizean lo geratu eta berandu joan naiz klasera

1go saria: Ane Agirre Imaz

2. saria: Iker Azpeitia Erauskin

3. saria: Arkaitz Aizpuru Vizuetete

Aipamen bereziak: Mikel Iturrioz Etxaniz, Beñat Torres Lete, Jone Alberdi Ballina, Noelia Gonzalez de Ulibarri Parrilla, Ane Elgarresta Asenjo, Miren Moyua Alberdi.

B maila. Gaia: eskolan urteroko bidaia egin dugu

1go saria: Amaia Iturrioz Etxaniz

2. saria: Maialen Igartua Arzelus

3. saria: Idoia Mendez Aranguren

Aipamen bereziak: Markel Garralda Zubimendi, Nerea Txinturreta Ballina, Ibane Cerezo Sanz, Maialen Zubillaga Jauregi

C maila. Gaia: librea

1go saria: Manex Mantxola Urrate (Urretxu)

2. saria: Maialen Torres Lete (Urretxu)

3. saria: Iker Fuentelsaz Bogajo (Zumarraga)



LEHIAKETAK ABIAN

Apirila iristearekin martxan dira Urretxu eta Zumarragako udalek antolatutako hainbat lehiaketa: lore sariketa, Narratiba eta Poesiako Iparragirre saria 2006, argazki lehiaketa eta pintura lehiaketa. Parte hartzeko interesa dutenek bi udaletako kultura zerbitzuetan eskura ditzazkete lehiaketen oinarriak. Sariak erakargarriak dira oso...



ZORIONAK MAIDER ETA MIKEL

Martxoaren 9an jaio ziren Maider Izagirre eta Mikel Mauleonen seme Andoni eta Beñat. Kaixoko lankideen partez zorionik beroenak eta besarkada handi bat lauroi!

Maite Quevedo

EUSKARA ZERBITZUA

En esta ocasión le ha tocado el turno al departamento de euskera.
Entre los distintos servicios que ofrece, se pueden distinguir
los siguientes apartados: subvenciones, actividades, convenio de colaboración
con Zintzo-Mintzo, EBPN, Traducciones...

DIRULAGUNTZAK

a.- Euskara ikasteko laguntzak

Helburua: Urretxu eta Zumarragako euskaltegietatik kanpo euskara ikasten aritu diren herritarrei dirulaguntzak ematea.

Baldintzak:

- herrian erroldatuta egotea eta 16 urte beteak izatea
 - herritik kanpo egindako ikasketak, EGA mailaraino
 - %80 edo gehiagoko asistentzia eta maila gaintzea
 - ikastaro bera egiteko beste laguntzarik ez izatea
- Zenbatekoa: matrikularen %50a

b.- Udako Euskal Unibertsitateko ikastaroak egiteko laguntzak

Baldintzak: herrian erroldatuta egotea

Zenbatekoa: matrikularen %50eko dirulaguntza ematen da

d.- Iragarki komertzialak euskara hutsean jartzeagatik.

Norentzat: era guztietako establezi menduak (merkataritza, industria, ostalaritza edo profesionalak)

e.- Hainbat erakunderi eta ekintzari dirulaguntzak:

Korrika, Kilometroak, Nafarroa Oinez, Araba euskaraz, Herri Urrats, Ibilaldia, Eskola Publikoaren Festa,...

f.- Hainbat komunikabideri dirulaguntzak: Hitza

g.- UDAL EUSKALTEGIARI diru ekarpena.

Urretxu eta Zumarragako udalek eta HABEK (Eusko Jaurlaritzak) diru ekarpena egiten diote helduen euskalduntze eta alfabetatze zerbitzuaz arduratzen den udal euskaltegiari.

EKINTZAK

Zumarragako Udalarekin batera kudeatuta.

a.- Haurrentzako udalekuak

Uztailean, 3 astez, 6-11 urte bitarteko haurrentzat, aisialdi enpresa baten bidez antolatuta.

b.- Etorkinentzako saio bereziak

Ikasturtean zehar, eta eskolekin elkarlanean antolatuta, 6-16 urte bitarteko haur eta gaztetxoentzat.

Helburua: etorkinen euskara maila indartzea

Ekintzak: aisialdiko ekintzen bidez, jolasak, bideoak, kantuak, ipuinak...

Gaur egun 3 talde daude, adinaren arabera sailkatuta, astean 3 aldiz elkartzen dira, ordubeteko saioetan, udal euskaltegian, udalek jarritako begirale batekin.

d.- Haur Hezkuntzako umeen

gurasoentzat euskara lantzeko saio bereziak. Saio hauetan gura soek euren umeek eskolan egiten

dituzten gaiak lantzen dituzte, udal euskaltegian. Udalen eta euskaltegiaren artean antolatuta. Gaur egun 4 talde daude, bi irakasle arduradun, astean 2-3 egun, 1,5 orduko saioetan.

e.- Begirale ikastaroa

KOKAPENA: udaletxeko beheko solairua

LANGILEAK: Euskara teknikari bat

TELEFONOA: 943 03 80 80

Urretxu, Zumarraga eta Legazpiko udalen artean antolatuta, URTXINTXA begirale eskolarekin lankidetzan.

Begirale titulua ateratzea du helburu.

Baldintzak: 18 urtetik gorakoa izatea eta 300 euroko matrikula ordaintzea (kostuaren gainkopurua udalek jartzen dute)

Antolaketa: urritik maiatzera, aste buruetan, 200 ordu teoriko eta 120 praktiko

LANKIDETZA HITZARMENA ZINTZO-MINTZO ELKARTEAREKIN

Urretxu eta Zumarragako udalek Zintzo-Mintzok garatzen dituen lau proiektutarako dirulaguntza ematen dute:

- Otamotz aldizkaria
- Gazte lokala
- Bertsos-eskola
- Jaietan egiten diren ekitaldiak

EUSKARA BIZIBERRITZEKO PLAN NAGUSIA (EBPN)

Eusko Jaurlaritzatik sortuta, udalei dagokie udalerrin bakoitzean martxan jarri eta jarraipena egitea.

Urretxu eta Zumarragako udalek Zintzo-Mintzorekin dute hitzartuta EBPNren jarraipen lana: Zintzo-Mintzok langile bat du jarrita, bi udalek finantziatuta; gainera, udal euskaltegiko irakasle bat ere ari da EBPNren lanetan; horiek biak, udaleko euskara teknikariarekin batera, arduratzen dira hainbat ekimen aurrera eramaten:

- Mintzalaguna proiektua
- Liburu lanketa
- Merkataritzako gaiak, hizkuntza paisaia
- Ikastetxeekin: zinea euskaraz, ni ere bertsolari...

ITZULPEN ZERBITZUA

Urretxuko Udalaren barruko itzulpen gintza: udal barruko dokumentuak, aktak etabar. Hala ere kanpoko kontsulta puntualak eta zehatzak ere erantzuten dira, nahiz eta zerbitzuaren helburua udal barruko itzulpen lanak egitea izan.>

Irene Calvillo



Jesus M.ª Alberdi euskara zerbitzuaren teknikaria



ACUERDOS ADOPTADOS POR LA JUNTA DE GOBIERNO LOCAL

Miren Castillo

ACUERDOS ADOPTADOS

28 - 11 - 06

Propuestas presentadas por la Comisión de Cultura y Festejos:

- Calendario cultural de diciembre:
Se da cuenta del programa cultural de diciembre que contiene las siguientes actividades:
Exposiciones, cine club, teatro, cursillos, concursos, conciertos, actividades en la biblioteca en Navidad, talleres infantiles, actividades infantiles.
Sometido el asunto a votación, por unanimidad se acuerda: Aprobar el programa cultural de mes de diciembre y aprobar el siguiente presupuesto de gastos:
Concurso de escaparates 408,45 euros.
Actividades en la biblioteca en Navidad, 1.025 euros.
Asimismo da cuenta de la reunión mantenida relativa a la celebración del Olentzero, e indica que no se va a celebrar por la tarde el desfile conjunto.

- Fiesta de Santa Lucía: Programa y presupuesto.

Se da cuenta del programa y presupuesto correspondiente para Santa Lucía 2005 propuesto por la Comisión Informativa de Cultura y Festejos.
Asimismo indica que probablemente no se celebre el concurso de aves, ya que desde la Comisión Europea se ha prolongado la prohibición de la celebración de estos concursos y exposiciones. Indica que se están trabajando diversas alternativas.
Se da cuenta de la reunión mantenida



entre la comisión de Deportes y las empresas pelotazales para la organización del festival de pelota así como del programa de Herri Kirolak.
Se acuerda, aprobar el programa de fiestas de Santa Lucía 2005 así como el presupuesto correspondiente a Urretxu y que asciende a la cantidad de 33.842,77 euros.

La Junta de Gobierno local por unanimidad concede las siguientes licencias:

- Obrador de pastelería en Labeaga 54: Se concede licencia apertura para obrador de pastelería en Labeaga 54.

- Pub Berit: se autoriza el cambio de titularidad del pub Berit sito en la calle Areizaga 10 bajo.

Relación de facturas :

Se da cuenta de la relación de facturas nº 20 por importe de 25.320,12 euros, que es aprobada por unanimidad.

ACUERDOS ADOPTADOS

29-12-06

Propuesta presentada por la Comisión de Cultura y Festejos:

- Calendario cultural de enero.

Se da cuenta del programa cultural de enero propuesto por la comisión y que contiene las siguientes actividades:

Teatro, concursos, torneo de ajedrez, conferencia, cursillo de pintura y de tapicería, cine-club, exposición de crismas y de pintura

Sometido el asunto a votación, por unanimidad se acuerda: Aprobar el programa cultural de mes de enero con el siguiente presupuesto de gastos:

Cursillos: Tapicería 1.082 euros y pintura 1.800 euros Exposición pintura 240 euros.

Al hilo del asunto se comenta que desde el concejal de Cultura del Ayuntamiento de Zumarraga se ha propuesto la elaboración de una agenda cultural conjunta, a lo que se le ha transmitido es que para éllo se ve la necesidad de que exista un mayor compromiso de colaboración.

Propuesta presentada por la Comisión de Acción Social:

- Programa conjunto de prevención de drogodependencia 2006.

Se da cuenta del programa conjunto de prevención de drogodependencias para el 2006 a suscribir con el Ayuntamiento de Zumarraga, indicando que las novedades con respecto al del año 2005 consisten en actividades tales como cine, orientación familiar. Programas de riesgo específico, testing, deshabituación tabáquica, y el estudio para habilitar un local de encuentro para jóvenes de 12-16 años.

Respecto al presupuesto de gastos de dicho programa informa que asciende a la cantidad de 190.950 euros, de los cuales 76.494,57 euros (40,06%) corresponden a Urretxu. Además corresponde abonar a Urretxu la cantidad de 6.993,80 euros + IPC en concepto de gestión de programas que se lleva a cabo por el técnico específico del Ayuntamiento de Zumarraga.

Tras un breve debate, por unanimidad se acuerda: Aprobar el Programa conjunto de prevención de drogodependencia 2006, así como su presupuesto.

Propuestas presentadas por la Comisión de Deportes y Juventud:

- Escuela de Gimnasia rítmica: Subvención.

Se acuerda conceder a la Escuela de Gimnasia Rítmica de Urretxu una subvención de 215,74 euros para la celebración del festival de Navidad.

Se informa que se ha trasladado a la responsable de la escuela de gimnasia rítmica que los festivales que ésta organice deberán de ofrecerse en el término municipal de Urretxu.



- S.D. Goierri: Subvención

Se acuerda conceder a la S.D. Goierri subvención por importe de 250 euros, para la celebración de partidos de pelota de Gabon Kopa

Calendarios laborales 2006

Se acuerda aprobar los calendarios laborales presentados por los trabajadores del ayuntamiento, excepto los de la brigada de obras, polideportivo y biblioteca, con la siguiente condición:

En el supuesto de que las necesidades del servicio así lo aconsejen, la Alcaldía podrá adoptar cualquier medida que crea conveniente dentro de lo establecido en el convenio Arcepafe.

Relación de facturas

Se da cuenta de la relación de facturas nº 22 por importe de 26.987,48 euros, que es aprobada por unanimidad.

23-01-06

Propuesta de la Comisión de Cultura y Festejos:

- Calendario exposiciones 2006.

Se acuerda aprobar el calendario de exposiciones 2006 y su presupuesto que asciende a la cantidad de 9.846 euros.



Propuesta de la Comisión de Acción social:

- Transporte a centros penitenciarios: Ayudas

Se acuerda conceder ayudas económicas en concepto de transporte a centros penitenciarios a tres familias, las ayudas son de 1.747,70 euros, 2.126,15 euros y 2.126,15 euros.

Licencias

- Irok Taller Mecánico, S.L.: Se le concede licencia de apertura para la legalización de taller mecánico de piezas en Polígono Matxinporta 6.

Días Inhábiles

Considerando que durante varios días de este año 2006, las dependencias municipales permanecerán cerradas en días distintos al festivo oficial de Santa Anastasia, con motivo de la celebración de festividades de tradición y costumbre local, se propone a la junta de Gobierno Local.

Declarar inhábiles los días 24 de junio, 3 de julio, 13 de diciembre, al solo efecto de trasladar al siguiente día hábil, el vencimiento en dichos días, de cualquier plazo, obligación o derecho relacionados con al Administración del Ayuntamiento de Urretxu

Calendario laborales 2006: Obras y Servicios

Se aprueba el calendario laboral de la brigada de obras y servicios para el año 2006, con la siguiente condición: En el supuesto de que las necesidades del servicio así lo aconsejen, la Alcaldía podrá adoptar cualquier medida que

crea conveniente dentro de lo establecido en el convenio Arcepefe.

Distribución de gastos derivados de actividades conjuntas entre los Ayuntamientos de Urretxu y Zumarraga: Porcentajes.

Se reestudian anualmente los porcentajes de distribución de gastos entre los Ayuntamientos de Urretxu y Zumarraga para todas las actuaciones conjuntas, fijando como criterio el ya establecido anteriormente: el número de habitantes oficial de cada municipio a 1 de enero de cada ejercicio resultando que Urretxu a 1-1-2005, tiene 6.723 habitantes y que esta es la última cifra declarada oficial por el INE.

Por unanimidad se acuerda: Fijar los porcentajes de distribución de gastos para las actividades conjuntas que se realicen entre los Ayuntamiento de Urretxu y Zumarraga durante el año 2006 en función de la última cifra oficial publicada por el Instituto Nacional de Estadística, resultando los siguiente:

- Urretxu: 40,03 %
- Zumarraga: 59,97%.-

Relación de facturas

Se da cuenta de la relación de facturas por importe de 26.406,58 euros, que es aprobada por unanimidad.

20 - 02 - 06

Propuestas presentadas por la Comisión de Euskera:

- Subvenciones 2006:

Se acuerda conceder una subvención de 120 euros a cada una de las siguientes organizaciones:

Nafarroa Oinez, Ibilaldia, Herri Urrats, Araba Euskaraz y a Sortzen-Ikasbatuaz.

- Convenio colaboración en materia de capacitación y normalización lingüística.

Se aprueba el convenio de colaboración entre el IVAP y el Ayuntamiento de Urretxu en materia de capacitación y normalización lingüística y se faculta al Sr.Alcalde para la firma de cuantos documentos sean precisos al efecto.

Plan de Promoción del Euskera:

- Liquidación de gastos año 2005

Se da cuenta de la liquidación de gastos correspondiente al año 2005, del Plan de Promoción del euskera encomendado a Zintzo-Mintzo y se acuerda aprobarla y abonar a la asociación abonar a la asociación Zintzo-Mintzo a fin de liquidar los gasto ocasionados con el mencionado plan la cantidad de 809,01 euros.



- Gure Irratia: Campaña publicitaria.

Se acuerda, realizar publicidad en Gure Irratia 3 cuñas diarias durante dos semanas por importe de 348 euros IVA incluido.

Propuestas presentadas por la Comisión De Cultura y Festejos:

- Urretxu-Zumarraga: Programación teatral 2006

Se acuerda aprobar la programación teatral del año 2006, así como el presupuesto que correspondería a Urretxu y asciende a la cantidad de 26.514,27 euros.

- Concursos año 2006

Se acuerda aprobar las bases y presupuestos de los concursos a celebrar en 2006 (XVII concurso de pintura, concurso fotográfico, concurso de narrativa y poesía. Iparragirre Saria, concurso floral, concurso de crismas y cuentos) y el gasto correspondiente a Urretxu que asciende a la cantidad de 5.444,08 euros.



Propuesta de la Comisión de Deportes y Juventud:

- 1er Gran Premio Urretxu para ciclistas Juniors: Subvención.

Se acuerda, conceder a S.D. Goierri, K.E. una subvención de 1.000 €, para la celebración del "1er. Gran Premio Urretxu" para ciclistas Juniors.



- Propuesta de la Comisión de Acción Social:

BERDINSAREA: Adhesión

Se acuerda manifestar la voluntad del Ayuntamiento de Urretxu para la adhesión a la Red BERDINSAREA que tiene como objetivo impulsar y coordinar programas y servicios que se desarrollan en los gobiernos a favor de la agresión hacia las mujeres.

La Junta de Gobierno Local por unanimidad concede las siguientes licencias:

- Troquelaria Lautrok, S.L.L.: legalización de actividad para taller de troquelado en Polígono Mugitegi Vial C nº 14.

- Hamburgueseria Atsegin Bi, S.L.: Licencia de apertura para bar de pintxos en Barrenkale 13-1



Relación de facturas

Se da cuenta de la relación de facturas nº 2 por importe de 34.711,23 euros, que es aprobada por unanimidad.

GOLDEN APPLE

QUARTET

EN SERIO

Apirilak 30 de Abril, Igandea

Ordua / Hora: 22:30

Lekua / Lugar: Urretxuko Labeaga aretoa

Sarrera / entrada: 10 €

Apirilaren 28an jarriko dira salgai Labeagan bertan, sarrerak amaitu arte. (Pertsonako 4 sarrera, gehienez).

Las entradas se pondrán a la venta el 28 de abril, en el mismo Labeaga, hasta agotarse. (Máximo de 4 entradas por persona).

Ordutegia / Horario:
Apirilak 28 de Abril, 18:00-21:00
Apirilak 30 de Abril, 21:30-22:30



HAURRENTZAKO PROGRAMAZIOA

TALDEA EGUNA	LANA LEKUA	EUSK./GAZT. ORDUA
Pirritx eta Porrotx 2006 - 05 - 07	"Maite zaitut" EDERRENA PILOTALEKUA	Euskeraz 17:00
OSKORRI eta KUKUBILTZO 2006 - 10 - 08	"Doktor DO RE MI" EDERRENA PILOTALEKUA	Euskeraz 17:00
Ane Monna eskola eta karramarroi 2006 - 11 - 19	"Amama Pantxikaren altxor ezkutua" LABEAGA ARETOA	Euskeraz 17:00

Haurren emanaldien sarrera: 5 €

